

Bezeroekiko harremanak:

Bezeroekiko harreman zuzena edukiko genuke gure denda propio nahiz telefonoz hitz eginda, eta modu zentzudun batean ikusiko gintuzketela pentsatzen dugu, egin beharreko lana modu zentzudun eta egokian egiten dugularik. Horrez gain, irabazien zati bat gaixotasun ezezagunen ikerketarako erabiliko zenez, bezeroek honi ere inportantzia emango lioketela uste dugu. Gainera, lehengaiak baserri, nahiz gertuko lekuetatik lortuko genituzkeenez, bertako lana bultzatzen dugula pentsatuko lukete. Eta guk modu honetan ikustea nahi dugunez, ez litzateke arazorik egongo.